



Arartekoaren 2020S-2095-19 EBAZPENA, 2020ko ekainaren 12koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio berrius dezala "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan banakako izen-ematea ukatzeko ebazpen bat.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko egindako eskaera ukatu diotelako eta ez zegoelako ados erabaki horrekin.

Kexagilea izena emanda ageri zen "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan, bere bikotekidearekin batera, 2015eko urriaren 13tik.

Egitatezko banantzearen ondoren, kexagileak etxebizitza-eskatzaile gisa bereiz inskribatzeko eskatu zuen, zehazki, 2019ko apirilaren 2an. Horretarako, adierazi zuen dibortzio-prozedura batean zegoela, eta kezkatuta agertu zen "Etxebiden" babestutako etxebizitzaren eskatzaile gisa zuen jatorrizko espedientearen antzintasuna gal zezakeelako.

2. 2019ko ekainaren 25ean, Arabako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek banakako inskripzio-eskaera ukatzea erabaki zuen, ez zuelako aurkeztu, eskatu zitzaionean, dibortzioaren epai judizial irmoaren kopia. Ebazpen hori 2019ko uztailaren 30ean jakinarazi zitzaion.

Eskubidea ukatzeko ebazpen horrekin ados ez zegoenez, kexagileak gorako jotzeko errekurtsio bat aurkeztu zuen. Bere idatzian, bere abokatuak sinatutako dokumentu bat erantsi zuen, dibortzio-izapideetan zegoela egiaztatzen zuena, nahiz eta oraindik ez zen epai irmorik eman.

Dena den, Etxebizitza sailburuordeak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ezestea ebatzi zuen; izan ere, uste zuen dibortzio-epaiak bakarrik utziko zuela kexagilearen banakako izen-ematea egiten "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.





3. Adierazitakoa aintzat hartuta, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari lankidetzara eskaera igorri zion, erreklamazioa eragin duen oinarria egiaztatze aldera.
4. Horri erantzunez, erakunde honek Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak egindako txostena jaso zuen. Txosten horretan, alde batetik, banantze- edo dibortzio-epai irmoa eman arte Etxebideko banakako izen-ematea ez onartzeko jarrera berretsi zuten, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

- *"El artículo 8.1 de la Orden de 15 de octubre de 2012 establece que las personas físicas o unidades convivenciales podrán inscribirse en el Registro de Solicitantes de Vivienda como demandantes de vivienda en régimen de compra o en régimen de arrendamiento, siempre que en la fecha de la solicitud cumplan todos los requisitos previstos en la normativa vigente para el acceso a tales viviendas. Entre los requisitos establecidos para el acceso, el artículo 15 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, dispone que el acceso a una vivienda de protección oficial por personas unidas por matrimonio o inscritas como pareja en el Registro de parejas de hecho deberá ser de titularidad compartida. A más abundamiento, el artículo 11 de la referida Orden que regular el Registro de Solicitantes de vivienda de protección pública exige que la solicitud para inscribir una unidad convivencial deberá estar suscrita por todos sus titulares, salvo en los casos previstos en el párrafo siguiente, y según el artículo 15, sólo se admitirá a trámite una solicitud de inscripción por personas o unidad convivencial.*

[...]

Por su parte, el Código Civil en su artículo 85 dispone que el matrimonio se disuelve, sea cual fuere la forma y el tiempo de su celebración, por el divorcio. Añadiendo el artículo 89 que los efectos de la disolución del matrimonio por divorcio se producirán desde la firmeza de la sentencia o decreto que así lo declare o desde la manifestación del consentimiento de ambos cónyuges, otorgado en escritura pública conforme a lo dispuesto en el artículo 87".

Hala ere, aipatu behar da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak baieztatzen duela dibortzio-epaia aurkezten den unean posible dela banakako izen-ematea eskatzea, betiere, espedientearen antzinatasuna etxebizitza-eskatzaile gisa mantendu behar da:





- *"En caso de divorcio, cada uno de los miembros mantiene la antigüedad del expediente primigenio, siempre y cuando individualmente cumplan los requisitos exigidos para su inscripción. Esto no resulta baladí, dado que, aunque no sea admisible su solicitud a título individual, él sigue manteniendo vigente un expediente en el Registro de Solicitantes de viviendas de protección pública, con la antigüedad de origen".*

Azkenik, kexa-espediente honetan agertzen diren administrazio-eppei dagokienez, Arabako Lurralde Ordezkaritzaren txostenak honako hau dio:

- *"Por último, y en cuanto a los efectos del silencio, si bien es cierto que, tal y como refiere el Ararteko, la falta de resolución y notificación en plazo conlleva incontestablemente una resolución estimatoria, en este caso, incluso en el supuesto, NO indubitado, de admitir que el silencio positivo ha tenido lugar, resulta preciso señalar que el interesado carece, a fecha de hoy, de los requisitos exigidos para estar inscrito en Etxebide a título individual mientras subsista su vínculo matrimonial, como ya hemos argumentado anteriormente, en consecuencia Etxebide, constatada dicha circunstancia, y en aplicación de la normativa vigente podría revocar dicha solicitud de alta, con lo que nos encontraríamos ante una situación idéntica a la actual".*

Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Euskal Autonomia Erkidegoan babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko, nahitaez eman behar da izena "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.

Illo horretan, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 13. artikulua ezartzen du Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa sortuko dela, eta horrek ordeztuko duela edo, hala badagokio, jarraipena emango diola aurretik zegoen administrazio-erregistroari. Erregistro horren helburua da etxebizitza babestuen eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzaren esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.





Horregatik, erregelamendu bidezko garapenik ez dagoenez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa da etxebizitza babestuen eskatzaileen kudeaketa- eta kontrol-lan hori esleituta duena.

Era berean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko 2012ko urriaren 15eko Aginduaren (aurrerantzean, 2012ko urriaren 15eko Agindua) 4. artikulua arabera, honako hauek dira Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren eginkizunak:

- a) *"Babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak eskuratzeko araudian aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo bizikidetzak-unitateak erregistratzea.*
- b) *Babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak kudeatu eta adjudikatzeko datuak erraztea; horietarako sarbidean herritarren berdintasuna eta lehia bermatuz.*
- c) *Administrazioari informazio eguneratua ematea, babes ofizialeko etxebizitzekin, zuzkidura-bizitokiekin eta parekatutako etxebizitzekin loturiko jardueren kontrola eta jarraipena egin ahal izateko, eta etxebizitza-programazio publikoak benetako eskarira egokitzeko.*
- d) *Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri bakoitzean babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura-bizitokiak eta parekatutako etxebizitzak eskuratzeko benetako eskaria ezagutzeko balio duten datuak bildu, tratatu, kudeatu eta eskaintzea, informazioa eman eta etxebizitza babestuaren arloko politika bideratzeko tresna gisa baliatuz".*

2. "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena eman ahal izateko, egia da zenbait baldintza eta betebeharrak bete behar direla. Hala, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren II. kapituluak berariaz ezartzen ditu aipaturiko erregistroa sartzeko baldintza orokorrak eta eskaera orok izan behar duen eduki zehatza.

Hemen interesatzen zaigunerako, zera ezarri du aipaturiko aginduaren 8.1. artikulua:





- *"Pertsona fisikoak edo bizikidetzak-unitateak Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena eman ahalko dute, erosketa-erregimeneko edo errentamendu-erregimeneko etxebizitza-eskatzaile gisa, baldin eta eskaera egiten den egunean betetzen badituzte etxebizitza horiek eskuratzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako betekizunak".*

Beraz, izena emateko eskaera bizikidetzak-unitateko kide guztiek sinatu behar dute, eta haietako bakoitzaren datu pertsonalak jaso behar ditu, aipatutako aginduaren 11.2 eta 12.a) artikuluen arabera, hurrenez hurren.

Horrela, bada, agindu horren 11. artikuluan xedatzen da pertsona edo bizikidetzak-unitate bakoitzeko inskripzio-eskaera bakarra onartzen dela.

3. Aurrekoa gorabehera, 3/2015 Legearen 3.e) artikuluan bizikidetzak-unitatea zer den definitzen da:

- *"Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikuluan xedatutako era berean definitzen da".*

Horrela, bada, 18/2008 Legearen 9.1.a) artikuluan agintzen da, gaur egun, besteak beste, honako pertsona edo pertsona-talde hauek hartuko direla bizikidetzak-unitatetzat:

- *"Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi direnak; sailkapen horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi arren, ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez beste bati lotuta daudenak, **non eta ez dabilzan banantzeko edo dibortziatzeko izapideak egiten**¹ edo non eta ez den erregelamendu bidez zehaztuko den bestelako salbuespeneko egoerarik gertatzen".*

4. Bestalde, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 15. artikulua (Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak aipatzen duena) babes publikoko etxebizitza baten sarbide- eta adjudikazio-araubidearen barruan kokatzen da. Eta, zehazkiago, aipatutako arauak ezkontzaren bidez elkartutako edo izatezko bikote gisa inskribatutako

¹ Nabarmendua, Arartekoarena.



pertsonak sartzeari egiten dio erreferentzia, babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko kontratuen titulartasunari dagokionez.

Hori dela eta, erakunde honek uste du arau horren hitzez hitzeko interpretazio teleologiko eta sistematikoak berekin dakarrela haren aplikazioa babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko araubidera bakarrik mugatzea eta ez "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskatutako betekizunetara.

Gainera, ez da ahaztu behar, ondorio praktikoetarako, etxebizitza bat banantze-edo dibortzio-izapideetan dagoen pertsona bati esleitzeak aurreikusitako araubidearen disfuntzionaltasun argia ekarriko lukeela, Arartekoaren iritziz.

5. Aurrekoaren harira, Arartekoak antzeman du banandutako edo dibortzio-izapideetan dagoen bikote batek zailtasunak dituela "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan banaka izena emateko.

Hain zuzen ere, Sailak banantzeari edo dibortzioari buruzko behin betiko ebazpena emateko eskatzen du, edo, adingabeak ardurapean izanez gero, dagokion hitzarmen arauemailea berresteko, erregistroan banakako inskripzioa errazte aldera. Hala ere, bikote-lotura haustea erabakitzen denetik gauzatzen dena arte, sailak banaka izen ematea eragozten duen aldi bat igarotzen da, nahiz eta lotura hautsi dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu. Adibide gisa, Arartekoak egiaztatu du, zenbait erreklamazio izapidetu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ez duela baliozkotzat jotzen indarrean dagoen errentamendu-kontratu bat entregatzea, erroldatze berezia egiaztatzea edo ezkontza desegiteko izapide judizialak hasi direla egiaztatzea. Halaber, erakunde horrek egiaztatu du sailak ere ez dituela onartzen egoitza judizialean egon daitezkeen atzerapenak, ezkontza desegin arte.

Ondorioz, Arartekoaren ustez, etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroak bertan inskribatutako pertsonen benetako etxebizitza-premiekin bat ez datorren errealitate desberdina erakusten du. Horrez gain, banatzeko izapideak hasten direnetik behin betiko epaia edo gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak lortzen dena arte, nahi ez diren egoerak gerta daitezke, eta gertatzen dira, etxebizitza babestuen eskatzaile gisa batera inskribatzea nahitaezkoa delako, nahiz eta bi pertsonen artean lotura ziurrik ez egon.





Izan ere, ez da ahaztu behar, etxebizitza bat eskuratzeko "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatu behar denean, kideetako bat onartzeak bertan inskribatutako pertsona guztiei baja ematea dakarrela inplizituki.

6. Horregatik guztiatik, Arartekoaren iritziz, Sailak aldi baterako banakako inskripzioen egoera iragankorrak erraztu beharko lituzke ezkontza-hausturen edo antzeko hausturen ondoren, lotura desegiteko jarduketak hasi izana behar bezala justifikatzen den kasuetan eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak ezartzeko epaiak edo ebazpenak behin betiko lortu arte. Horrela, erregistroak kolektibo horren etxebizitza-beharrizan jakinen egiazko emaitza erakutsiko luke.

Bestela, etxebizitza bat "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dagoen eta banantze- edo dibortzio-izapideetan dagoen pertsonetako bati esleitzeak ekitate-gabezia egoerak eta kalteak eragin diezazkioke jada inolako harremanik ez duen beste pertsonari, ez baitator bat babes publikoko etxebizitzaren arloko araudiaren espirituarekin eta xedearekin.

Egoera hori geroz eta gehiago ematen da eta, Arartekoaren iritziz, erregistroan banakako inskripzioa lortzeko banantze- edo dibortzio-epaia nahitaez aurkeztu beharrak ez ditu aintzat hartzen pertsona horien etxebizitza babestuaren behar errealak.

Alde horretatik, erakunde honek gogorarazi nahi du Konstituzioko 9.2 artikuluan honela ezartzen dela: *"botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen"*. Horregatik guztiatik, bere osotasuna galarazten edo zailtzen duten oztopoak baztertzeko betebeharra ezartzen da.

Ondorioz, Arartekoak uste du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egoera iragankor horiek kontuan hartuko dituzten zenbait arau-aurreikuspen artikulatu beharko lituzkeela, banantze- edo dibortzio-izapideak egiten ari den edozein pertsonari modu indibidualean laguntzen dion etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa bermatzen jarraitzeko.

7. Erakunde honen ustez, azken batean, adierazitako eta egiaztatutako banantze- edo dibortzio-borondatearekin bat datorren interpretazio bat eginez gero,





hasierako izen-ematea egin ahal izango litzateke, epai irmoa eman edo hitzarmen arauemailea judizialki berretsi ondoren baieztatu ahalko litzatekeena.

Horrela, adibidez, interesdunak sinatutako zinpeko aitorten single bat edo antzeko dokumentu mota bat aurkezteak, bizikidetzaren bereizi bat osatzen duela eta araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duena, aukera emango luke "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan banaka inskribatzeko, eta horrek ez luke eragotziko arrazoizko epean banantze-/dibortzio-epai bat edo neurriak ezartzeko ebazpen bat aurkezteko konpromisoa.

Era berean, arauaren berezitasunarekiko distantziak alde batera utzita, hainbat indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei zuzentzen zaielako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko aginduak, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako etxebizitza-arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoak, 7.2 artikuluan ezartzen ditu bikotekidea izan denarekin bizikidetzaren eten dela egiaztatzeke beste bide batzuk:

a) "Ezkontza edo izatezko bikotea osatuz gero, banantze edo dibortzio epaia edo izatezko Bikoteen Erregistroan baja ematea. Salbuespenez, nahikoa izango da banantze edo dibortzio demanda epaitegi eskudunean aurkeztu izana egiaztatzea. Dagokion lurralde-ordezkaritzak bizikidetzaren ziurtagiria aurkezteko eskatu ahal izango du, egokitzen jotzen duenetan.

b) Gainerako interesdunek, hau da, ezkontza ez daudenek edo izatezko bikotea osatu ez dutenek, bizikidetzaren eten dutela egiaztatu beharko dute; horretarako, errolda-agiria aurkeztu beharko dute, ekintza positiboaren neurria eskatzen den egunean, eskatzailearekin bizi diren edo erroldatuta dauden pertsonak egiaztatzeke. Gainera, dagokion lurralde-ordezkaritzak bizikidetzaren ziurtagiria aurkezteko eskatu ahal izango du, egokitzen jotzen duenean".

8. Azkenik, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskabide-espeditarean epeak betetzeari dagokionez, eta Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak erakunde horri emandako erantzuntxostenean adierazitakoa kontuan hartuta, berriz esan behar da 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 23.2 artikuluan inskripzio-eskaerak ebazteko eta jakinarazteko aurreikusten den gehieneko epea hiru hilabetekoa dela.





Gainera, 23. artikuluko horren 4. apartatua beren-beregi ezartzen da ebazpena epearen barnean ez jakinarazteak baiesteko ondorioak izango dituela.

Illo beretik, azpimarratu behar da administrazio-isiltasunez baiesten den kasuetan, egintza gertatu ondorengo berariazko ebazpena egintza berresteko baino ezingo dela eman, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.3 artikulua araberera.

9. Laburbilduz, Arartekoaren ustez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak berariazko neurriak ezarri beharko lituzke banantze- edo dibortzio-izapideetan dauden eta behin betiko ebazpenaren zain dauden pertsonen banakako inskripzioa ahalbidetzeko. Alde horretatik, erakunde honek uste du sailak aldi baterako banakako izen-ematea onar dezakeela, baldin eta interesdunak egiaztatzen badu lotura desegiteko izapideak hasi dituztela.

Aurreko gogoetetan azaldutakoari, honako hau gehitu beharko litzaioke: printzipio antiformalistak gidatu behar du administrazioaren jarduketara oro eta horrek eskatzen du forma interes orokorren defentsaren eta bermearen menpe egotea.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren araberera, Arartekoak honako gomendio hau egiten du:

Iradokizuna

Adierazitako guztia aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak berriz azter dezala kexagilearen “Etxebide” Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan banaka izena emateko eskaera ukatzeko ebazpena.

Era berean, Arartekoak bikote-izaera hautsi ondoren banakako inskripzioak arauz antolatzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari. Horretarako, ez da beharrezkoa izango bikotea desegiteko behin betiko erabaki judiziala edo gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak aurkeztea, betiere interesdunak behar bezala egiaztatzen badu dagozkion izapideak hasi dituela.

